

Euskal AEko Administrazio Publikoen batez besteko enplegua 2017an 131.885 pertsonakoa izan zen, aurreko urtean baino %1,7 gehiago

Emakumeak gero eta gehiago dira, guztizkoaren %62,6 jada

Euskal AEko Administrazio Publikoek, batez beste, 131.885 enplegatu izan zituzten 2017an, Eustaten datuen arabera, aurreko urtean baino %1,7 gehiago. Estatuaren Administrazioa eta Gizarte Segurantzako langileak ez dira kontuan hartzen.

131.885 langile publikoen %65,2 Erkidegoko Administrazioan aritu ziren; %19,4 Tokiko Entitateetan; %8,1 Foru Aldundietan; gainerako %7,2ak unibertsitatean, fundazioetan eta beste entitate publiko batzuetan. Enpleguaren banaketa hori Euskal AEko erakundeetan aldaketa gutxiarekin da mantentzen urteen joanean.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileak, erakunde motaren arabera

	2011		2015		2016		2017		2017/2016 (%)	2017/2011 (%)
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%		
Guztira	127.291	100	128.047	100	129.737	100	131.885	100	1,7	3,6
1.- Eusko Jaurilaritza	83.009	65,2	83.447	65,2	84.752	65,3	86.046	65,2	1,5	3,7
2.- Foru aldundiak	10.201	8,0	10.186	8,0	10.404	8,0	10.727	8,1	3,1	5,2
3.- Tokiko entitateak	25.532	20,1	25.184	19,7	25.400	19,6	25.565	19,4	0,6	0,1
4.- Beste Entitate Publiko Batzuek	8.549	6,7	9.230	7,2	9.181	7,1	9.547	7,2	4,0	11,7

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

2016arekin konparatua, urteko batez besteko enplegua Euskal AEko administrazioetan 2.148 pertsonatan hazi zen; azpimarragarria da portzentaje Foru Aldundien bilakaera, %3,1eko tasarekin, eta ondoren Eusko Jaurilaritza dator, %1,5eko batekin. Tokiko Entitateek eta horien menpeko erakundeek %0,6ko hazkundera eduki zuten; halaber, gainerako Entitate Publikoek –zeinetan dauden, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatea, fundazioak eta elkarteak– %4ko aldakuntza eduki dute.

Beste alde batetik, 2017ko abenduaren 31ko datarekin, funtzionarioak guztizkoaren %62,1 ziren eta %37 lan-kontratuko pertsonala (barnean ziren kasu bietan Osakidetzako estatutupeko langileak); %0,9 goi-karguak ziren.

2017an Euskal AEko Administrazio Publikoen zerbitzurako langile guztien %59,4 langile finkoak, funtzionarioak, lan-kontratudunak eta estatutupekoak ziren; %39,7, bitarteko funtzionarioak (%15,9) eta aldi baterako langileak (%23,8).

2017ko abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailerak

	GUZTIRA	Eusko Jaurlaritza eta menpeko organismoak	Foru aldundiak eta menpeko organismoak	Tokiko entitateak eta menpeko organismoak	Beste entitate publiko batzuk
Guztira	134.440	88.137	10.560	26.106	9.637
Goi-karguak	1.206	315	128	605	158
Funtzionario guztiak	83.462	58.442	6.855	14.659	3.506
Funtzionario finkoak	62.077	45.024	4.711	9.557	2.785
Aldi baterako funtzionarioak	21.385	13.418	2.144	5.102	721
Lan kontratadun guztiak	49.772	29.380	3.577	10.842	5.973
Lan kontratadun finkoak	17.718	7.724	2.135	5.531	2.328
Aldi baterako lan kontratadunak	32.054	21.656	1.442	5.311	3.645

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

2017ko abenduaren 31n gizonezkoak ziren Euskal AEko Administrazio Publikoetako langileen %37,4, eta emakumezkoak %62,6. Aurreko urtearen aldean, %2,7ko hazkundera izan da emakumezkoen kasuan eta %0,4koa gizonezkoenengan. Euskal AEko Administrazio Publikoetan, emakume enplegatuen nagusigo hori modu progresiboan areagotu da. Halatan, 2011ren aldean, emakumeek ehuneko ia bi puntu irabazi dituzte guztizkoaren gainean.

Abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileak, sexuaren arabera

	2011		2015		2016		2017	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	128.540	100	130.447	100	131.973	100	134.440	100
Gizonak	50.408	39,2	50.085	38,4	50.100	38,0	50.316	37,4
Emakumeak	78.132	60,8	80.362	61,6	81.873	62,0	84.124	62,6

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Lurraldeen partiketari doakionez, Bizkaiak langile enplegatu guztien %48,9 ditu hartzen; Gipuzkoak, %30; Arabak, gainerako %21,1ak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileen lurralde-banaketa. 2017

	GUZTIRA	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Eako administrazioak	131.885	27.939	64.448	39.498
Eusko Jaurlaritza	86.046	18.021	42.427	25.599
Foru aldundiak	10.727	3.382	4.835	2.510
Tokiko entitateak	25.565	4.802	12.045	8.718
Euskal AEko beste entitate publiko batzuk, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko instituzioak	3.058	631	1.243	1.184
Euskal Herriko Unibertsitatea	6.489	1.104	3.898	1.487

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Oharra: urteko batez besteko lana

Ohar metodologikoa: Administrazio Publikoak dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, Foru Aldundiak, Udalak, Erakunde Autonomiadun Administrazioak, Entitate Publikoak, Sozietate Publikoak, Fundazioak eta haien menpeko Irabazi Asmorik Gabeko Institutuzioak. Barne daude %50eko edo gehiagoko parte-hartze publikoa duten entitateak, administrazio batena edo zenbaitena.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62